

INDUSTRIA ELEKTRONIKA ETA AUTOMATIKA: ETORKIZUNA GAUR DA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza 1, Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Elektronikak eta automatikak presentzia handia dute gure industria ingurunean. Gradu honetako ikasleek ahalmena izango dute era askotako arazo praktikoei aurre egiteko hainbat gaietan, hala nola, instrumentazio elektronikoa, potentzia elektronika, robotika, kontrola eta industria automatismoak. Horretarako gure laborategietan praktikatzen dute tresna profesionalak erabiliz.

Proposatzen diren laborategi praktika honetan Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan egunero erabiltzen ditugun tresnekin lan egin ahal izango dute ikasleek.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Gizakiok zentzumenen bitartez informazioa jaso eta burmuinarekin erabakiak hartzen ditugu. Bada, mundu digitalean informazioa sentsoreen bitartez eskuratu eta gailu programagarrietan guk sortutako programei esker erabakiak hartuko dira. Proposatzen dizuegun jarduera honakoa da:

- Gure ikasleek erabiltzen duten myRIO izeneko gailu programagarria erabiliko duzue.
- Gailu programagarri horri sentsoreak eta eragingailuak (kasu honetan, LED argiak) konektatuko dizkiogu eta horiek erabiliko ditugu.
- LabVIEW izeneko programazio hizkuntza grafikoa erabiliz programatuko dugu dena, blokeak elkarrekin konektatuz, oso erraz!

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

I) Harrera eta taldeen antolaketa:

Laborategietan egingo diren praktikak aurkeztuko zaizkie.

II) Laborategietan jarduera praktikoa:

Titulazioko laborategietako bat ezagutuko dute ikasleek, eta, adibide praktikoen bidez, bertan egiten diren jarduerak azalduko zaizkie. Bertaratutakoak Gradura modu praktikoa hurbilduko dira.

III) Inkesta pasako zaie

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-17	Euskara	Goizez	09:30 - 11:00	30
2025-01-17	Gaztelania	Goizez	11:30 - 13:00	30